



Pornografiaren eragina nerabezaroan

Azken hamarkadetan, pornoaren kontsumoa asko handitu da, eta igoera horren arrazoi nagusietako bat eduki-mota hori eskuratzeko erraztasuna da, teknologia berriak erraztu egiten baitu haren kontsumoa. Pornoaren kontsumitzea oso kaltegarria izan daiteke gazteentzat, bere sexua hautemateko moduan eragiten, baita errealitate faltsua sortuz.



Iker Martinez, Josu Gonzalez eta Markel Huerta ANDOAIN

Gaur egungo aro digitalean, pornografiara sartzeko aukera inoiz baino errazagoa eta zabalagoa da. Klik bakar batekin, gazteek eduki esplizituaren mundura sartzeko aukera dute, eta horrek eragina izan dezake haien sexualitatearen eta harreman pertsonalen pertzepzioan. Baina, zein dira benetako ondorioak haien garapen emozional eta sozialean?

Mugarik Gabeko Sarbidea

Estatistiken arabera, nerabe gehienek 18 urte bete aurretik pornografiara sartzeko aukera izan dute, eta haietako askok eduki hori maiz kontsumitzen dute. Gailu mugikorren eta Interneten bidezko sarbide errazak, pornografia gazte askoren sexu-hezkuntzaren iturri nagusi bihurtu du, eta horrek zalantzak sortzen ditu jasotzen duten informazioaren zehaztasun eta osasunari dagokionez.

Azken urteetan, gazteek 9 eta 14 urte bitartean hasten dira pornografia kontsumitzen, antzinan baino dezente urte gutxiago. Igoera horren arrazoi nagusietako bat, irudi sexistak kontsumitzeko erreztasuna izan liteke, bai sare sozialean, bai Interneten nabigatzen.





Itxaropen Errealistak eta Harreman Distortsionatuak

Nerabezaroan pornografiaren kontsumoak sexualitateari buruzko itxaropen errealistak eraikitzea oztopa dezake. Industria pornografikoak eszena gehiegizkoak erakusten ditu, eta horrek gazteen sexuari, plazerari eta baimenari buruzko pertzepzioetan eragina izan dezake. Esposizio horrek frustrazioa, segurtasunik eza eta harreman pertsonaletan zailtasunak eragin ditzake.

Autoestimaren eta Gorputz-Irudiaren Eragina

Beste ondorio garrantzitsu bat gorputzaren pertzepzioan duen eragina da. Pornografiak gorputz estandar idealizatuak erakusten ditu normalean, batzuetan gorputz “perfektuak” edo operatuak gehienetan, eta horrek konplexuak eta segurtasun eza sor ditzake gazteen artean, beren gorputzak eduki horretako aktore eta aktorekin konparatzen dituztelako.






Mendekotasun eta Isolamendu Arriskuak

Pornografiaren gehiegizko kontsumoak mendekotasuna ere eragin dezake, gazteen eguneroko bizitzari kalte eginez. Kasu batzuetan, erabilera jarraituak isolamendu sozialera, kontzentrazio-arazoetara eta harreman emozional osasuntsuak ezartzeko zailtasunetara eramán ditzake.




Hezkuntza Sexualaren Eginkizuna

Egoera honen aurrean, sexu-hezkuntza integrala tresna giltzarri bihurtzen da pornografiaren kontsumoaren eragin negatiboak konpentsatzeko. Gazteei sexualitateari, baimenari, emozioei eta elkarrekiko errespetuari buruzko informazio errealista emateak sexualitatearen ikuspegi osasuntsuagoa garatzen lagun diezaieke.






Akzesibilitatea:

Pornografiaren kontsumoa asko igo da azken urteetan, zergatik? Sare sozialengatik batez ere. TikTok, Instagram, Twitter, eta mota honetako sare sozialen algoritmoetan ezin dituzu ziur aukeratu azaltzen zaizkizun gauzak, eta horregatik “post sexualak” ugariak dira, umeen eta pornorik ikusi nahi ez duten pertsonen aurrean jartzen direlako. Hau gazteen sexu desira laster piztu ditzake, desira gazte honek nahasketa eta lehen esandako ondorioak eragiten ditu. Ere, interneten dagoen kontrol falta garrantzitsua da pornografiaren garapenean. Web pornografiko batera sartzean kontrol filtro txarrak agertzen dira, batzuetan botoi bat bakarrik ukitzean sartu zaitezkeelako.



Konponbidea


Pornografia gazte askoren errealitate digitalaren parte den arren, haren kontsumoa hezkuntzarekin eta kontzientziaz kudeatu behar da. Guraso, hezitzaile eta osasun mentaleko aditu gaiari tabu gabe heldzea ezinbestekoa du, orientazio argia eskainiz eta harreman pertsonalak errespetuan eta komunikazioan oinarritzen lagunduz. Horrela bakarrik murriztu ahal izango da pornografiaren kontsumo desinformatuak belaunaldi berrietan sor dezakeen eragin negatiboa.



Inkestak

Hurrengo orrian Lasalle Berrozpeko DBH 1ean egindako inkesta bat egin ondoren lortutako hainbat grafiko aurkeztu eta azalduko ditugu. Grafiko hauei esker, emaitza garrantzitsuenak modu argi eta laburrean ikus ditzakegu, eta parte-hartzaileen iritzia eta joerak hobeto ulertzeko aukera dugu. Gure helburua da informazio hori aztertzea eta ondorio erabilgarriak ateratzea.

Pornoa ikusten duzu?




Inkesta hau 75 pertsonen erantzun dute. Datu hauen arabera, galdetutako populazioaren artean pornoa ikustea ez da ohikoa. Hori hainbat arrazoiengatik izan daiteke: adin-tartea, ingurune soziala edo lotsa soziala egia esatean, batzuetan pornografia ikustea pertsona arraro bat bezala uzten zaitu. Baliteke ere zenbait pertsonen ezkutatuan egitea jardura hau, eta ingurune sozialetan eta inkestetan gezurra esatea, epaitua izanaren beldurrarekin.

Baiezkoa bada, zenbatero?



- Egunero
- Astean 2-3 aldiz
- Astean behin
- Noizean behin
- Oso gutxitan





Inkesta hau 13 pertsonen erantzun dute. Gehienek jardura hau maiz egiten dute (astean 2-3 aldiz), baina gutxitan egiten dutenen portzentajea ere handia da. Horrek adierazten du ohitura honen maiztasuna oso aldakorra dela pertsonen artean. Harrigarria da %15,4k pornografia egunero ikustea, lehenengo inkestan pornoa ikusten zutenak gutxiengo zirelako. Bukatzeko, aukera pare bat aukeratu gabe daudela ikusi dezakegu, parte-hartzaile gehienak bi muturretara biltzen direlako: edo nahiko maiz, edo oso gutxitan.

Zuk bilatu zenuen edo nahigabe iritsi zitzaizun?




Inkesta hau 75 pertsonen erantzun dute. Edukia jende gehienarengana nahigabe heltzen da, hau da, ez dute bilatzen, baizik eta sare sozialetan topatzen dute edo norbaitek bidaltzen die. Horrek erakusten du eduki horren hedapena pasiboa dela, eta ez aktiboa, eta horrek garrantzia du edukien kontrolari eta zabalkundeari dagokionez.

Errealak iruditzen zaizkizu eszenak?



Ikusitako eszenak gehiengoari ez zaizkie errealak iruditzen, eta horrek erakusten du ikusleek badutela eduki horiek interpretatzeko gaitasun kritikoa. Hau garrantzitsua da, ikus-entzunezko edukien eraginari aurre egiteko orduan.

Faltan botatzen duzu heziketa sexualari buruzko ikasgai bat?



Pertsona askok oraindik beharra sentitzen dute heziketa sexualari buruzko prestakuntza osagarri bat izateko. Horrek erakusten du arlo horretan hutsune bat dagoela oraindik, eta egoki izango litzateke horri heltzea hezkuntza-sisteman, gazteek informazio fidagarria eta osasungarria jasotzeko aukera izan dezaten.

